

Xan Goenaga

«Gazteek ez dute euskara lanjeran ikusten»

Iparraldeko lehen euskara eskolen lekuko, AEKren sortzaileetakoa eta Seaskako irakasle ohia, Xan Goenaga Parisko biziaz asperturik bere erro euskaldunen bila etorri zen Euskal Herrira.

KRISTINA ENCINAR

Argazkia: Lander Arbelaiz

HASTAPENAK GOGORRAK izan ziren, baina gauza bat argi du, giro ezin hobe sortzen zela eta jakin-min handia bazela euskarara hurbiltzeko. Orain Baionako AEKn eta Errobi Elkargoko sei langile-talderentzako euskara trebatzaile ari da lanean.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

Pauen sortu nintzen, eta gero bizi izan naiz luzaz Parisen. 1971n hango biziaz asperturik hona etorri nintzen. 1968aren ondotik mugimendu anitz sortu ziren eta ildo horretan ari nintzen ene erroen bilatzen, baina ene familiak ukatu zuen euskalduntasun hori. Nire aita, Bordelekoa izanik, egon zen Hego Euskal Herrian gerla piztu aitzin, gero gazte zelarik aterpetu zen Iparraldera, eta hor nolazpait ukatu zuen bere euskalduntasuna. Ez genuen aipatzen Euskal Herria etxean, nire ama ere ez da batere euskalduna. Banuen ametsa dena uzteko eta Euskal Herrira artzain joateko. Lehenbiziko euskara eskolak Parisko Euskal Etxean jaso nituen.

Aldiz, zure ibilbidea arras lotua da euskararekin.

Niretzako hona etortzea zen euskara ikastea, zeren eta nahi nuen haste-hastetik nire burua errebindikatu euskaldun gisa, eta nola ez nekien euskara, ez nintzen hemen sortua, arras kanpotarra nintzen, bide bakarra zen hizkuntza. Hizkuntzaren bitartez nahi nuen ezagutarazi nire euskalduntasuna.



Zer moduz artzain artean?

Aski fite lortu nuen egonaldi batzuk egitea artzainekin, eta horrela praktikan eman dut ikasi nuen euskara apurra. Artzainekin nintzen garaian nik behar nuen inposatu euskara, bestenaz aise lerratuko ziren frantsesera. Hastapenean zaila zen, ez zuten nire aha-legina ulertzen, lezio-emaile bezalakoa nintzen. Konfiantza ukan zutenean ontsa, baina hastapena gogorra da. Izan ere, orokorrean, euskaldun zahar batzuk minduak dira haiek galdu zuten euskara eskoletan irakasten dela ikustean. Euskaldun berrientzat beharbada euskara ikastea polita da, baina hizkuntza kontserbatu ez duten batzuek ez dute anitzetan iritzi bera ukaiten.

Iparraldeko lehen euskara ikastaroen lekukoa zara.

Mende Berri elkartearekin aritu nintzen, euskararen eta kulturaren inguruan ari zen elkartea. Azpimarratzekoa da lehenbiziko bi ikastaldiak egin direnak Iparraldean ezin izan zirela muntatu Euskal Herrian, baina Bordelen. Hiri horretan bazen misiolari afrikarren etxe bat, eta bertan hasi ginen, beste tokirik ezean. Hirugarrena jadanik Donapaleun egin zen. Harrigarria da baina Euskal Herrian ezin izan zen orduan ikastaldi bat eman euskara ikasteko. Bazen euskarazko eskolekiko beldurra, mesfidantza, ez zen onartzen. Nire oroitzapen azkar bat da ikastaldi batean gauez gazte batzuk, bertakoak, harrika aritu zirela gure kontra, eta zinez barne-tegi batean ginen, setiatuak bezala [barrez]. Hala ere, garai horretan sentitu nuen harrera ona euskaldun berriengandik, zerbait ikasi bezain fite besteei transmititzen zitzaien. Biziki bide emankorra da euskara ikasteko.

Nolako giroa zen ikastaro horietan?

Garai hartan bazen lan bat bereziki gazteekin lizeoetan: erakusten eta ukitzen zen euskal kultura. Hogei ikasle inguruko entzuleriarentzako kantu batzuk emateko etortzen zen Benito Lertxundi ikasgelara. Bestaldeko lagun anitz etortzen zen ikasleekin mintzatzeraz, Manex Goiene-txe, Txillardegia, Laplace, eta abar, urte horietan bazen euskararekiko jakin gosea. Udaiko ikastaroetatik kanpo ez zen fitsik, sortu eta itzaltzen ziren eskolak, jarraipenik gabe. 1980an sortu zen Iparraldean AEK, auzotegi bezainbat eskola sortzeko asmoz. Bi kezka genituen: behar zen absolutuki frogatu euskara ikas zitekeela (pedagogia berri-tzea) eta ikas-prozesua eraginkorra izan behar zuela (ordutegia tinko-tzea, oren gehiago sartzea). Julen Kaltzada, Alberto Gabika eta Josu Naberan etortzen ziren laguntzeko.

“Euskaldunberrientzat beharbada euskara ikastea polita da, baina hizkuntza kontserbatu ez duten batzuek ez dute anitzetan iritzi bera ukaiten”

Seaskakoa zer esperientzia izan da?

Seaska espero ez nuen bizipena atzeman nuen. Nire lankide zen irakasle anitz ez zen arras euskaldundua, baina hala ere, konpromisoa hartzen zuten ikasgai guztiak euskaraz emateko. Hori izan da niretzat ikastaldirik eraginkorrena. Ikusi ditut gazte horiek euskara ikasten eta urte bat pasa eta gero euskaraz mintzatzen ziren, eta gainera, gai ziren euren ikasgaia euskaraz irakasteko. Euskara lanean erabiliz ere ikasten da. Seaska hizkuntza-murgiltzea zen ikasleentzat eta irakasleentzat ere bai. Hala

ere, lana ere behar zen ikasleei euren artean euskaraz egitera bultzatzeko, gazteek ez dute euskara lanjeran ikusten, eta euskara badakite, baina motibazio falta dute molde naturalez praktikatzeko. Min egiten du horrek. Joan nintzen zeren ez nuen nire burua ikusten zahartzen beti toki berdinean, baina bestalde sentitzen nuen emankorrakoa nintzela helduekin gazteekin baino. Gazteekin taldea atxiki behar duzu, diziplinaz kudeatuz, zailagoa da, belaunaldi kontuak direla pentsatzen dut. Helduek, ordea, badute motibazioa piztua, haiek hautatu dute etortzea, euskara ezagutzea. Hobeki sentitzen naiz.

Orain euskara trebatzaile zara.

Bada publiko bat nahi duena ikasi lan denboran eta lanerako. Hortxe urrats bat eman izan da, talde horiek animatuz, sustengatuz, eta behar da aurkitu ildoa non lanean erabiliko duten ikasitakoa, euskara praktikatzeko eta hobeki izateko lanean. Nire ikasleak idazkariak dira, gizarte-zerbitzukoak, herriko etxeetako langileak, eta abar. Abantaila da kontuan hartzen dugula ingurumen bat, ikastea indibiduala da baina euskara gauzatzea kolektiboa da, ikasleen artean harremanak lotzen saiatzen gara, eraginkorrak izateko. Bakoitzak aurkitu behar du sare bat —lagun taldea, familia, lana...— non euskaraz aritu ahal den, bestenaz ez du ikasiko bururaino: fiteago eta hobeki praktikatzeko.

Euskara ikasten ari nintzela, banituen bizpahiru kontaktu eta banekien horiekin aritu ahalko nintzela euskaraz. Oso lagungarria izan da. Eraiki ditut harreman horiek euskaraz eta oraindik euskarazkoak dira. ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, elkarriketaren pasarteak bidean.

Babeslea: Zumaia Euskara Zerbitzua



Zumaia Euskara Zerbitzua
www.zumaia.net

Zumaian eta Euskal Herrian

euskaratxanpan

Foruen enparantza, 1
20750 ZUMAIA
Tel.: 943865025
Faxa: 943862456
euskara@zumaiaoudala.net
euskaratxanpan@zumaiaoudala.net